



Prentsa Oharra Nota de prensa

Aldundiak Caicedo Yusoko lakuaren historia nabarmendu du, Lagus izeneko Erdi Aroko herrixkari buruzko panelen bidez

Antzinako herrixkaren arkeologia aztarnak Arabako Natura 2000 Sareko naturagune honen aparkaleku berria eraikitzean agertu ziren.

Caicedo Yusoko lakua kontserbazio bereziko eremu bat (KBE) da, eta baita Añanako diapiroaren biotopo babestua ere. Flora eta fauna espezie babestuak daude bertan, hala nola, odono bitxia edo txitxi-burruntzia –desagertua edo Europa gehiengan gainbeheran- edo eta *Ophioglossum vulgatum* izenez ezagutzen den iratzea, espezie mehatxatuen zerrendan jaso.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 12a. Arabako Foru Aldundiak Natura 2000 Sareko naturagune dugun Caicedo Yusoko lakuaren historia nabarmendu du. Horrexegatik zenbait panel jarri ditu Lagus/Lagos antzinako herrixkaren iragana azaltzeko. Izan ere, arkeologia aztarna horiek lakuaren bisitarientzako aparkaleku berria eraikitzeko lanak egiten ari zirela agertu ziren.

Ilustrazioen bidez, Erdi Aroko antzinako herrixkaren eguneroko bizimodua eta eraikuntza motak islatu nahi dira, bai eta Brontze Aroko txabolena ere, horien aztarnak ere agertu baitira arkeologia indusketetan.



Herrixka honi buruzko lehen lekukotza idatzia Donemiliagako Errexa izenez ezagutzen den 1025eko dokumentu batean dago jasota. Bertan Lagus agertzen da golde-mutur bat ordaintzen, zerga gisa, Donemiliaga Kukullako monasterioari. Baina, esku hartze arkeologikoaren ondoren, begien bistan da mende bat lehenagotik bazegoela. Beste dokumentu batzuetan herrixka XIII. mendera arte egon zela bermatzen da. Era berean, XV. mendearen lehen zatian kontzejua zela agertzen da. Baina, horrez gain, badago dokumentazioa XVI. mendearen erdialderako Lagos jendez hustutako herrixka bat zela eta Lagosko Santa Maria, herrixkako antzinako parrokia, Caicedo Yusoko ermita bat zela adierazten duena.

Paneletan adierazten den bezala, "herrixka hau desagertzeak lakuaren kondaira sortu zuen. Kondaira horrek kontatzen duenez, amabirjina txiro jantzita agertu zenean herriko bentaren aurrean, gaitzetsi egin zuten. Horren ondorioz, lakuak herrixka irentsi zuen, premia zuenari harrera uko egiteagatik".

Natura 2000 Sarea naturagunea

Caicedo Yusoko lakua kontserbazio bereziko eremu bat (KBE) da, eta baita Añanako diapiroaren biotopo babestua ere. Espezie babestuek ditu. Horren adibideak dira zingira-mirotza, lezkari arrunta, lezkari karratxina, txilinporta edo murgil handia, bai eta leku hori hibernatzeko aukeratzen duten beste espezie batzuk ere, adibidez, miru beltza edo odonato bitxi bat, txitxi-burruntzia izenez ezagunagoa den burruntzia, Europa gehiengan desagertua edo nabarmenki gainbeheran doana.

Landarediari dagokionez, galzorian dauden espezieak ere nabarmentzen dira, hala nola, *Berula erecta* eta *Ophioglossum vulgatum* izenez ezagutzen den iratze bat, biak babestuek eta Espezie Mehatxatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Zerrendan jasoak.



Araba da erronka | El reto es Álava